TOKIKO GOBERNU BATZORDEA | JUNTA DE GOBIERNO LOCAL

TOKIA / LUGAR: Gizarte-etxea
DATA / FECHA: 2018/11/07
HASIERA / INICIO: 20:40
AMAIERA / FINAL: 20:45

BERTARATUAK / ASISTENTES:
ALKATEA / ALCALDE
Aitor Aretxaga Telletxea (EAJ-PNV)

ZINEGOTZIAK / CONCEJALES:
Miren Idoia Etxebarria Otazua (EAJ-PNV)
Andoni Elorrieta Arronategi (EH BILDU)
Jon Ander Zulueta Andicoechea (BIT)

IDAZKARI OROKORRA / SECRETARIO GENERAL
Víctor-Martín Amparan Álvarez

IZAERA / NATURALEZA: Ohikoa / Ordinaria
DEIALDIA / CONVOCATORIA: Lehena / Primera

Busturiko Udaletxean, adierazitako egun eta orduan, Alkate jauna buru zela, Tokiko Gobernu Batzordea bildu zen ohiko saioa egiteko lehen deialdian. Ekitaldiaren fede eman zuen Udalbatzaren idazkari Víctor-Martín Amparan Álvarez jaunak.

Alkate jaunaren aginduz, ekitaldiari hasiera eman zitzaion, aurretik nahikoa denboraz zinegotziei banatutako gai-zerrendaren arabera, eta akordio proposamen hauek egin ziren:

En el Ayuntamiento de Busturia, siendo el día y hora indicados, bajo la Presidencia del Sr. Alcalde y con asistencia de los concejales arriba mencionados, se reunió la Junta de Gobierno Local, al objeto de celebrar sesión ordinaria en primera convocatoria. Dio fe del acto el Secretario de la Corporación, D. Víctor-Martín Amparan Álvarez.

De orden del Sr. Alcalde dio comienzo el acto conforme al orden del día que ha sido distribuido entre los concejales con la suficiente antelación, adoptándose los siguientes acuerdos:

**1.- Aurreko saioko akta.-**

Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez adostu zuen 2018ko urriaren 17ko saioko akta onartzea.

**1.º.- Acta de la sesión anterior.-**

La Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó aprobar el acta de la sesión de 17 de octubre de 2018.

**2.- Amunategi errekaren ibilguaren egokitzapena.-**

Ur Agentziak aurkezturiko idazkia irakurri da. Bertan, Udalaren iritzia eskatu du Axpe auzoko 97. etxe (Errotatxu) pareko harri-hormazko zubiaren inguruan egin nahi duen lanari eta, are, hura kentzeko aukerari buruz. Hauek dira Agentziaren proposamenaren zioak: ur-jarioari eusteko, egungo estalki-harlauzaren maila igo egin beharko litzateke, eta horrek aldaketa asko ekarriko luke: oinezkoentzako zein ibilgailuetarako etxebizitzetarako bi sarbide errekaren bi aldeetan eraldatu, aparkalekurako sarbidea eraldatu eta, neurri batean, zubiko petrilak eta lurra estali.

Ekarritako dokumentazioa ikusita, Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, aurkezturiko proposamenari baiezkoa ematea erabaki du, betiere kontsulta egin zaion Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara eta Kultura Sailak idatziz onetsiz gero.

**2.º.- Acondicionamiento del cauce del arroyo Amunategi.-**

A continuación se dio lectura al escrito presentado por la Agencia Vasca del Agua, Ur Agentzia, en el que solicita la valoración municipal de la actuación que tiene prevista en el entorno del actual puente de mampostería situado frente a la casa 97 del barrio Axpe, Errotatxu, así como la posibilidad de su eliminación. Justifican su propuesta en que, para mantener el flujo hidráulico, sería necesario elevar la cota de la losa de cobertura existente actualmente y ello obligaría a modificar dos accesos peatonales y de vehículos a viviendas o parcelas en ambos márgenes del arroyo, así como el acceso al parking, además de tapar parcialmente los pretiles y el pavimento del puente.

A la vista de la documentación aportada, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó acceder a la propuesta presentada, siempre y cuando el Departamento de Euskera y Cultura de la Diputación Foral de Bizkaia, a la cual se ha formulado consulta, conceda por escrito su aceptación.

**3.- San Migel Goiaingeruaren Elizako tximistorratza.-**

Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, Altamirako San Migel Goiaingeruaren Parrokiari 500 €-ko diru-laguntza ematea adostu du, bertan tximistorratza jartzeko; izan ere, hura jarrita, Elizaz beraz gain, auzoaren zati bat eta Eskola Publikoa, Kultur Etxea... udaleraikuntzak ere babestuko lirateke.

**3.º.- Pararrayos en la Iglesia de San Miguel Arcángel.-**

La Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó conceder una ayuda de 500 € a la Parroquia San Miguel Arcángel de Altamira para la colocación de un pararrayos en la misma, ya que de su instalación se beneficiarán, además de la propia Iglesia, parte del barrio y edificios municipales, tales como el Colegio Público, la Casa de Cultura, etc.

**4.- M. M. A.ren eskaera.-**

Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, M. M. A. udal-langilearen eskaera onartu du. Eskaera horren arabera, ordubete gutxiagoz egingo du lan egunero, urtebetez, mendekotasuna duen senide bat zaintzeko.

**4.º.- Solicitud de M. M. A.-**

La Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó acceder a la solicitud de la empleada municipal M. M. A. para disfrutar de una reducción de la jornada laboral de una hora, durante un año, por cuidado de familiar dependiente.

| 5.- Udal-langileen eskaera.- | 5.º.- Petición de empleados municipales.- |
|---|---|
| Tokiko Gobernu Batzordeak, aldeko bost botorekin eta kontrako boto batekin, udal-bulegoetako langileen eskaerari uko egitea erabaki du. Eskaera horren arabera, 2018ko udan jendaurreko arreta emateko ordutegiari urte osoan eutsi nahi zioten, hau da 9:00etatik 14:00etara, gainerako orduak (8:00etatik 9:00etara eta 14:00etatik 15:00etara )barne-lanak egiteko utzita.<br>Eskaeraren aurka bozkatu duten zinegotziek hala egin dute udarako ordutegia salbuespenezkotzat jotzen dutelako, administrari laguntzaileen oporretarako ordezkoa kontratatzeko ezintasunagatik, eta, ordutegi murriztuarekin, hainbat biztanle udal-bulegoetara joateko aukerarik gabe geratuko liratekeelako, baina Udalak, batez ere, biztanleen zerbitzura lan egin behar du. | La Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó denegar la petición de los empleados de las oficinas municipales para mantener durante todo el año el horario de atención al público que se ha empleado en el verano de 2018, es decir, de 9 a 14 horas, para poder utilizar las dos horas restantes (de 8:00 a 9:00 y de 14:00 a 15:00 horas) para adelantar los trabajos internos.<br>Los concejales justificaron su decisión en que consideraban que el horario establecido para el verano fue excepcional, debido a la imposibilidad de contratar una persona sustituta para las vacaciones de las auxiliares administrativas y que, con el horario reducido, habría vecinos que no podrían acudir a las oficinas municipales y que el Ayuntamiento debe velar, sobre todo, por el servicio a los vecinos. |
| **6.- Toledo Taldearen idazkia.-** | **6.º.- Escrito de Toledo Taldea.-** |
| Jarraian, Toledo Taldeak aurkezturiko idazkia irakurri da, Busturiko Hiri Antolamendurako Plan Nagusia idazteagatiko ordainsariari buruzkoa. Idazkiaren arabera, 2006ko kontratua da, KPIa epe honetan % 18,70 igo da, lanek atzerapen handia dute eta ordainketa-sistemak behin betiko onespenerako ehuneko oso handia uzten du, % 30ekoa. Era berean, ordaindu gabeko ezohiko beste lan batzuk ere aipatu ditu, Sakonetan industria-lurzorua jartzeko aukeren azterketa edo San Antonioko enklabeari buruzko txostena, kasu.<br>Horregatik guztiagatik, ordaintzeke dagoen lansariaren % 25 aurreratzeko eskaera egin du, hau da, 7.147,50 €.<br>Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, Toledo Taldearen eskaera onartu zuen. | A continuación, se dio lectura al escrito presentado por Toledo Taldea, sobre los honorarios de redacción del Plan General de Ordenación Urbana de Busturia. Manifiesta que se trata de un contrato del año 2006, que el incremento del IPC en este periodo ha sido del 18,70%, que los trabajos llevan una demora extraordinaria, y que el sistema de pagos deja para la fase de aprobación definitiva un porcentaje muy elevado del 30%. También alude a la realización de otros trabajos extraordinarios no retribuidos, como el estudio de alternativas para la implantación de un suelo industrial en Sakoneta y un informe sobre el enclave de San Antonio.<br>Por todo ello, solicita que se le anticipe el pago del 25% de los honorarios pendientes, es decir, 7.147,50 €.<br>La Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó acceder a la petición de Toledo Taldea. |
| **7.- Leandro Gómez S.L.U.-ren idazkia.-** | **7.º.- Escrito de Leandro Gómez, S.L.U.-** |
| Leandro Gómez S.L.U.-k aurkezturiko idazkia irakurri da, zeinaren arabera: J. M. N. B.k, salaketa egin duen enpresarena den Altamira harrobi ondoko lursail batzuen jabeak, lursail horietako zuhaitz batzuk moztu, atera eta garraiatu egin ditu. Lan horien ondorioz, aipatu harrobian sartzeko atean kalte handiak eragin dira. Hori dela eta, N. jaunak sorturiko kalteak ordaintzeko eskaera egin du.<br>Hori ikusita, Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, hauxe erabaki du:<br>1.- Leandro Gómez S.L.U.-ri jakinaraztea beraren jabetzan sorturiko kalteak gai zibil edo penala direla, udal-administraziotik kanpo ebatzi beharrekoak. | Se dio lectura al escrito presentado por Leandro Gómez, S.L. U., en el que expone que J. M. N. B., propietario de unas parcelas de terreno colindantes con la cantera de Altamira, de la que es titular la empresa denunciante, ha procedido a cortar, sacar y transportar unos árboles plantados en dichas parcelas. Como consecuencia de esos trabajos se le han causado importantes daños en la puerta que da acceso a la citada cantera, por lo que solicita que el Sr. N. proceda a subsanar los desperfectos ocasionados.<br>A la vista de ello, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó:<br>1.- Informar a Leandro Gómez, S.L.U., que los daños ocasionados en la puerta de su propiedad es un asunto civil o penal |

2.- N. jaunari eskaera egitea ateratako egurra legearen arabera egin dezan, Udal honek ez baitu ez horren berri izan ez udal-bidea erabiltzeko baimenik eman.

que debe dirimirse fuera del ámbito administrativo municipal.
2.- Requerir al Sr. N. para que legalice la saca de madera realizada, de la cual este Ayuntamiento no ha tenido conocimiento ni ha concedido autorización para la utilización del camino municipal.

**8.- M. J. G.ren erantzukizun-erreklamazioa.-**

Jarraian, M. J. G. B.k ondare-erantzukizuna eskatzeko egindako erreklamazioa irakurri da. Udal honen aurkako erreklamazio hori San Bartolome auzoko 65.eko Ispizu baserriaren lurretan eragindako kalteei buruzkoa da (tamaina handiko zuloa), eta, bere ustez, ondoko bidean euri-urak bideratzeko lan batzuek eta uraren ibilbidea aldatu izanak eragin dituzte.
Uraren Euskal Agentzia-URAren txosten batean oinarriturik egin du erreklamazioa. Txosten horrek dio puntu horretan dagoen euri-uren kutxatila bat izan litekeela luiziaren arrazoia.
Horrenbestez, Tokiko Gobernu Batzordeak erabaki du, aho batez, Uraren Euskal Agentzia- URAri Ispizu baserrian agerturiko zuloan euri-urek izan dezaketen eraginari buruzko txosten zehatzagoa eskatzea.

**8.º.- Reclamación de responsabilidad de M. J. G.-**

A continuación se dio lectura a la reclamación de responsabilidad patrimonial formulada por M. J. G. B. contra este Ayuntamiento por los daños (un socavón de grandes dimensiones) producidos en los terrenos del caserío Ispizu del barrio de San Bartolomé n.º 65, que achaca a unas obras de canalización de aguas pluviales en un camino colindante y la alteración del discurrir del agua.
Basa su reclamación en un informe de la Agencia Vasca del Agua, URA, en el que se asegura que una arqueta de pluviales situada en ese punto pudiera ser la causa del desprendimiento.
A la vista de ello, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó solicitar de la Agencia Vasca de Agua, URA, un informe más detallado sobre la posible influencia de las aguas pluviales en el socavón aparecido en el terreno del caserío Ispizu.

**9.- Zain dezagun Urdaibairen idazkia.-**

Ondoren, Zain dezagun Urdaibaik aurkezturiko idazkia irakurri da: Urkitzepe eta Lugarrirako sarbideei eta bizilagunek eginiko itxiturei dagokienez, neurri hauek hartzeko proposamena egin du:
1.- Busturiko Udalak administrazio-espedientea hastea, Lurzoruaren eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 224. artikuluan jasotako aurreikuspenei jarraiki, eta Urkitzepe ontzitegiaren inguruan hirigintza-baimenik eta sektore-baimenik gabe eginiko "itxitura eta hesi" lanetan hirigintza-legezkotasuna berrezartzeko aurkezturiko salaketa-idazki honi dagokion izapidea egitea.
2.- Busturiko Udalak betearazteko agindua ematea, arrazoi hauengatik: lan horiek ez dira legeztagarriak, aipatu 2/2006 Legearen 224. artikuluaren arabera, kale eta zorbideen tarteei dagozkien indarreko hirigintza-ordenantzak ez dituztelako betetzen eta baimenik gabeko materialekin (txarrantxa, artzain elektrikoa eta puskaturiko material herdoilduak) eraiki direlako; eta, edonola ere, egungo legez kanpoko hesi eta materialak kenaraztea, edo, bestela, hesia kostaren mugaketa ofizialak ezarririko zorbideen lerroraino eramatea, aurretik zuinketa-akta gauzatuta. Gainera, zera ohartaraziko da: betearazteko agindua bete ezean, Administrazioak modu subsidiarioan leheneratuko du eraldaturiko errealitate fisikoa, arau-hauslearen kontura.
3.- Horrez gain, egintza publiko edo salaketa honen berri ematea Euskadiko Kostaldeko Mugapenari, Uraren Euskal Agentzia-URAri eta Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren Patronatuari, honen guztiaren berri izan dezaten.

**9.º.- Escrito de Zain dezagun Urdaibai.-**

Seguidamente se dio lectura al escrito presentado por Zain dezagun Urdaibai, en el que, en relación a los accesos a Urkitzepe y Lugarri y los cierres realizados por los vecinos, propone la adopción de las siguientes medidas:
1.- Que el Ayuntamiento de Busturia incoe un expediente administrativo, conforme con las previsiones del artículo 224 de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo, y por ello dé el trámite que corresponda al presente escrito de denuncia presentado para restablecer la legalidad urbanística respecto a las obras “de cierres y vallados” realizadas sin licencia urbanística ni autorizaciones sectoriales en el entorno del varadero de Urkitzepe.
2.- Que el ayuntamiento de Busturia dicte una Orden de Ejecución al tratarse de obras no legalizables y, conforme al mismo artículo 224 de la Ley 2/2006 y considerando que las mismas no respetan las ordenanzas urbanísticas vigentes en cuanto a separación de viales y servidumbres públicas, y además estar construidos con materiales no admitidos (alambre de espino, pastor electrificado y metales herrumbrosos de deshecho) y, en todo caso, que contenga la retirada de las actuales vallas y materiales ilegales o, en su caso, el retranqueo del vallado hasta la línea de servidumbre de tránsito establecido por el deslinde oficial de costas, previa ejecución del acta replanteo. Con la advertencia expresa que si la Orden de Eje-

4.- Edonola ere, ZAIN DEZAGUN URDAIBAI ELKARTEA egintza publikoa gauzatzeko prozeduran alde interesdun aitortzea; horrela, interesduna izaki, espedientea bukatu arteko edo Udalaren ekintzak artxibatu arteko urrats guztien berri izango du, baita izan litezkeen helegiteen berri ere.
Hori ikusita, Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, hauxe erabaki zuen:
1.- Administrazio-espedientea hastea.
2.- Zain dezagun Urdaibairen idazkia Euskadiko Kostaldeko Mugapenari, Uraren Euskal Agentzia-URAri eta Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren Patronatuari helaraztea, honen guztiaren berri izan dezaten.
3.- Zain dezagun Urdaibairi interesdun-izaera aitortzea.
4.- Euskadiko Kostaldeko Mugapenari Urkitzepeko itxiturei dagokienez hasitako espedienteei buruzko datuak eskatzea.

cución no fuera cumplida, la Administración actuante procedería a ejecutar subsidiariamente la reposición de la realidad física alterada, con cargo al infractor.
3.- Que además se dé traslado de la presente acción pública o denuncia a la Demarcación de Costas del País Vasco, a la Agencia Vasca del Agua, Ura y al Patronato de la Reserva de la Biosfera de Urdaibai, para su conocimiento.
4.- Que en todo caso, se reconozca a ZAIN DEZAGUN URDAIBAI ELKARTEA la condición de parte interesada en el procedimiento en el ejercicio de la acción pública, que implica la obligación de comunicar a las partes interesadas, los pasos del expediente hasta su terminación o el archivo de la intervención municipal a los efectos del ejercicio de las acciones y recursos que correspondan en cada caso.
A la vista de ello, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó:
1.- Incoar el expediente administrativo.
2.- Dar traslado del escrito de Zain dezagun Urdaibai a la Demarcación de Costas del País Vasco, a la Agencia Vasca del Agua Ura y al Patronato de la Reserva de la Biosfera de Urdaibai, para su conocimiento.
3.-Reconocer a Zain dezagun Urdaibai su condición de parte interesada.
4.- Solicitar de la Demarcación de Costas del País Vasco datos sobre expedientes abiertos sobre esta materia de los cierres en Urkitxepe.

**10.- Landa-bideak erabiliz egurra ateratzeko baimena.-**

Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, erabaki du Maderas Arantzari S.L.-ri landa-bideak erabiliz egurra ateratzeko baimena ematea (3/18 esp.), A. E. G.rena den Pagozarreta menditik, 286,17 estereoan, Goiherriko bidea erabiliz.

**10.º.- Licencia de utilización de caminos rurales para la saca de madera.-**

La Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó conceder autorización para la utilización de caminos rurales para la saca de madera a Maderas Arantzari, S.L. (Expte. 3/18), del monte “Pagozarreta”, propiedad de A. E. G., por un total de 286,17 estéreos, utilizando el camino de Goiherri.

**11.- Egurra ateratzeagatiko abalaren itzulketa.-**

Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, eskaera hau onartu du:
- Maderas Arantzari S.L.-ri Goiherriko bidea erabiliz egurra M. M. O. M.rena den “Atxirika” menditik ateratzeko jarria duen 18.000 €-ko fidantza itzultzea, ezin baitu egurrik atera, aipatu bidea itxita dagoelako.

**11.º.- Devolución de aval por saca de madera.-**

La Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó aceptar la siguiente solicitud presentada:
- Maderas Arantzari, S.L., para la devolución de la fianza de 18.000 € que tiene depositada para la saca de madera del monte “Atxirika”, propiedad de M. M. O. M., utilizando el camino de “Goiherri”, por no poder realizar los trabajos de saca, ya que está cerrada dicha carretera.

Eta, besterik gabe, Alkate jaunak amaitutzat eman zuen saioa, eta, adostutakoa oinarri, akta hau idatzi da, Alkate jaunak eta nik, Idazkariak, egiaztatzen dudanak, sinatu duguna.

Y no habiendo más asuntos que tratar, el Sr. Alcalde dio por terminado el acto y de lo acordado se extendió la presente acta que firman, el Sr. Alcalde y el Secretario que certifico.

Alkatea / El Alcalde,

Idazkaria / El Secretario,

Izp. / Fdo.: Aitor Aretxaga Telletxea

Izp. / Fdo.: Víctor-Martín Amparan Álvarez